

LGTTBIQ+ GLOSARIOA

Ekainaren 28an, *Gay eta Lesbianen Harrotasun Eguna* izaten da urtero. Egun horri lotuta, EITBk **EKIN_Aniztasuna** kanpaina abiaraziko du ekainaren 20tik 28ra, eta, horrenbestez, glosario bat ondu dugu, informatzaileentzat baliagarria izan daitekeelakoan. Lehen erreferentzia moduan, Emakunderen *Feminismoa eta Berdintasuna Hiztegia* (2020) erabili dugu.

- Abiatzeko, kontzeptu bi bereizi behar dira:

genero-identitate

(**es**: identidad de género / **fr**: identité de genre / **in**: gender identity)

Pertsona bakoitzak bere generoaz duen pertzepzioa. Ez dago zertan bat etorri jaiotzean pertsona horri egokitu zaion sexuarekin. Genero-identitatea, gainera, ez da bitarra, alegia, gizon eta emakume kontzeptuetatik harago joan daiteke.

sexu-orientazio

(**es**: orientación sexual / **fr**: orientation sexuelle / **in**: sexual orientation)

Pertsona batek beste pertsona batzueganako erakarpen emozionala, erromantikoa eta/edo sexuala sentitzeko duen joera.

- Ikuspegi bi aurrez aurre: tradizionala eta egungoa

Ikuspegi tradizionalaren arabera, genero-identitatea eta sexu-orientazioa bat datoz, eta dikotomia bat ezartzen dute pertsonen artean: gizonak alde batetik, eta emakumeak beste aldetik. Alegia, ikuspegi tradizionalak sexu/genero **sistema bitar bat** ezartzen du.

Eguno ikuspegiaren arabera, sexu-orientazioa eta genero-identitatea kategoria bi dira, elkarrekiko independenteak, eta onartzen du pertsonen artean badirela gizonak eta emakumeak baino gehiago. Dokumentu eta formularioetan, praktikotasunaren izenean, gero eta zabalduago dago hiru aukera eskaintzean norbere burua identifikatzeko: **gizona** / **emakumea** / **ez-bitarra**.

- Harrotasun Egunaren atzean, LGTBQ+ mugimendua dago.

LGTB mugimendua

(**es**: movimiento LGTB / **fr**: mouvement LGTB / **in**: LGTB movement)

Mugimendu sozial eta politiko bat, pertsona lesbiana, gay, trans eta bisexualen eskubideen aldeko borrokan diharduena. Azken urteetan, sexu-orientazioetatik edo genero-identitateetatik bazterketa eta jazarpena jasaten duten beste kolektibo batzuk bildu ditu, eta izena luzatu LGTBQ+ siglaraino.

LGBTQ+

(**es**: LGBTQ+ / **fr**: LGBTQ+ / **in**: LGBTQ+)

Kolektibo hauek guztiak batzen dituen sigla: lesbianak (L), gayak (G), transak (T), bisexualak (B), intersexualak (I), queerak (Q) eta besteak (+).

- Hauek dira LGBTQ+ siglak batzen dituen kolektiboak:

lesbiana

(**es**: lesbiana / **fr**: lesbienne / **in**: lesbian)

Emakumezko homosexuala; emakumeenganako erakarpen sexuala sentitzen duen emakumea.

gay

(**es**: gay / **fr**: gay / **in**: gay)

Gizonezko homosexuala; gizonenganako erakarpen sexuala sentitzen duen gizona.

bisexual

(**es**: bisexual / **fr**: bisexuel; bisexuelle / **in**: bisexual)

Bai gizonenganako bai emakumeenganako erakarpen sexuala sentitzen duen pertsona.

intersexual

(**es**: intersexual / **fr**: intersexué; intersexuée / **in**: intersexual)

Sexu kromosomikoaren, gonaden eta genitalen arteko desadostasuna ageri duen pertsona.

trans

(**es:** trans / **fr:** trans / **in:** trans)

Bi termino bereizten dira kontzeptu honetan:

transgenero

(**es:** transgénero / **fr:** transgenre / **in:** transgender)

Jaiotzean egokitu zaion generoarekin identifikatzen ez den pertsona.

transexual

(**es:** transexual / **fr:** transsexuel; transsexuelle / **in:** transsexual)

Sexu-aldaketa hasteko edo burutzeko tratamendu hormonal edo kirurgikoa hartzen duen transgeneroa.

Beraren osagarria beste termino hau da:

zis [zisgenero - zisexual]

(**es:** cis [cisgénero - cissexual] / **fr:** cis [cisgenre - cissexuel; cissexuelle] / **in:** cis [cisgenre - cissexual])

Jaiotzean egokitu zaion sexuarekin/generoarekin identifikatzen den pertsona.

Ikuspegi honen arabera, pertsona bat honela identifika daiteke:

emakume transa / emakume zisa

gizon transa / gizon zisa

queer

(**es:** queer / **fr:** queer / **in:** queer)

Tradizionalki edo sozialki onarturiko etiketekin identifikatu nahi ez duen pertsona.

beste

(**es:** queer / **fr:** queer / **in:** other)

Aurreko kategorietako batekin ere identifikatzen ez den pertsona.

asexual

(**es:** asexual / **fr:** asexuel; asexuelle / **in:** asexual)

Beste pertsonenganako erakarpen sexualik sentitzen ez duen pertsona.

genero-fluido

(**es:** género fluido / **fr:** genre fluide / **in:** genderfluid)

Genero-identitatea unearen eta testuinguruaren arabera egokitzen duen pertsona.

demisexual

(**es:** demisexual / **fr:** demisexuel; demisexuelle / **in:** demisexual)

Inorenganako erakarpena sentitzeko aurretik berarekin lotura emozional sendoa ezartzea behar duen pertsona.

polisexual

(**es:** polisexual / **fr:** polysexuel; polysexuelle / **in:** polysexual)

Genero bat baino gehiagoko pertsonenganako erakarmen sexuala sentitzen duen pertsona.

pansexual

(**es:** pansexual / **fr:** pansexuel; pansexuelle / **in:** pansexual)

Genero guztietako pertsonenganako erakarmen sexuala sentitzen duen pertsona.

antrosexual

(**es:** antrosexual / **fr:** anthrosexuel; anthrosexuelle / **in:** anthrosexual)

Zein sexu-orientazio duen ez dakien pertsona; hori ez da eragozpen beste pertsona batekin lotura afektiboa ezartzeko.

...